

BALIO PROPOSAMENA.

Gaur egun, gazte ugari dago ikasketak bere herritik kanpo egin nahi dituenak, baina diru sarrera nahikoak ez dituztenez, pisu bat ordaindu ezin dutenak. Bestalde, adinduen kasuan ere arazo larria dago, asko eta asko nahiz eta osasun aldetik ondo egon, bakarrik sentitzen baitira.

Horregatik, arazoari aurre egiteko enpresa bat sortzea erabaki dugu, gazte nahiz helduak harremanetan jarriz eta gazteei helduen etxe bizitzetan bizitzeko aukera emanez, konpainia egitearen truke.

